



Liburuak

LÓPEZ Y LÓPEZ, A.M.,
MONTÉS PENADÉS, V.L.
(koor.) *Eskubide errealak eta ondasun higiezinaren erregistroari buruzko zuzenbidea*, Deustuko Unibertsitatearen Argitarapenak, Zuzenbide saila, 58. Zenbakia, Bilbo, 1997; 1.021 orr. Itzultzaileak: B. Landa, E. Urrutia, K. Isusi, M. Dobaran eta J. Etxebarria. Itzulpenaren koordinatzaileak: A. Urrutia eta G. Lobera. Oharrak: A. Atxabal.



Deustuko Unibertsitateak, beste behin ere, aspaldi honetan jorratu duen lorratzari eutsiz, kaleratu egin digu Zuzenbide Sailaren barnean *Eskubide errealak eta ondasun higiezinaren erregistroari buruzko zuzenbidea* izeneko liburua. Gaztelaniatik euskarara eginiko itzulpena izanda ere, zalantzarik ez dago liburuaren gaia erabat tekniko-juridikoa dugula. Izan ere, gaur egun, eskubide errealen eta, oro har, jabetzaren inguruko gorabeherak oinarritzko bihurtu dira antolamendu juridikoa. Jabetzak gizartean duen funtzioa, jabetzak berak dituen mugak eta mugapenak, jabetza mota desberdinak... guztiak daude liburuki horretan euskaraz azalduta, zuzenbideko ikasle, irakasle jardunean dabilen profesional ororentzat. Azpimarratzekoak, edozein modutan ere, jabetza bereziei, alegia, industri jabetza eta jabetza intelektual izenokoei eskeintzen zaien tratamendu zabala. Modu berean ere, errealtate berriak ditugun multijabetza eta aldirako jabetza (*time-sharing*) ageriko dira lan horretan. Badira, bestalde ere, berebiziko garrantzi praktikoa duten gaiak, hala nola, jabetza horizontalaren hika-mikak, hipotekari buruzko zertzeladak edota Jabetza Erregistroaren barne funtzionamenduari buruzkoak. Lan hau, azken finean, kate baten jarraipena da. Horrexegatik aurreko liburuetan (*Zuzenbide zibila. Zati orokorra eta Kontratuei buruzko zuzenbidea*) ibiliak direnak hementxe ere itzulpearen egile ditugu. (Iturria: Cesar Gallastegi, Deustuko Unibertsitateko irakaslea)

ZELAIA, A. *Kooperatiben Zuzenbidea. Oinarriak*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1996. 121 orr. Liburuaren sarreran aipatzen denez, gaurkotasuna eta erakargarritasuna edo interes berezia duten kontzeptuen azterketan saiatu da egilea. Batez ere, Kooperatibagintzak dituen betekizun soziologiko eta ekonomikoak (1. Kapituluak) eta Sozietateen Zuzenbide orokorrean eta Kooperatiben Zuzenbidean bereziki lan edo laguntza ekarpenak duten interesa (2. Kapituluak). Ondoren datozen hiru ataletan Kooperatiba moduko elkartearen oinarritzko egitura, organu mailako egitura eta ekonomi-jaurpidea xehetzen dira.



COMISSIÓ DE NORMALITZACIÓ LINGÜÍSTICA I SERVEI LINGÜÍSTIC, *Zuzenbideko Formularioak*, Legelarien Euskal Kontseiluko Euskara Batzordea, l.g., 1997. Itzultzaile: UZEI.

Legelarien Euskal Kontseiluko Euskara Batzordeak Zuzenbideko Formularioak lana argitara berri du. Bertan, abokatuen eguneroko jardunean erabilienak diren berrogeita hamar bat idatzi jasotzen dira fitxa moduan, bai euskara zein gaztelaraz karpeta itxurako formatoan. Karpeta honek eranskin gisa diskete bat dakar, bertan formulario berak euskara hutsez jasotzen direlarik. Bilduma honen egilea Kataluinako Abokatuen Elkargoen Kontseiluak bere baitan duen *Comissió de Normalització Lingüística i Servei Lingüístic* delakoa da, eta bere garaian Kataluinako Normalkuntzarako *Consorci*-arekin batera egindako katalanaren sustapen kanpainarako abiapuntu bezala erabilia. Esan bezala, idazki erabilienak jasotzen dira eta helburua bikoitza da; batetik, abokatu euskaldunari tresna erabilgarriak eskeintzea euskararen erabilpena sustatzeko eta bestetik, *corpus* delakoan baterakotasun bat ematea, hau da; nolabait denok antzeko formak eta formulak erabiltzea. Itzulpena UZEI entpresaren bidez egin da eta laguntzaile gisa, Donostiako Euskararen udal patronatua izan dugu.



ZABALA, I. (koor.), *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoak*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitaletxea Zerbitzua, Bilbo, 1996, 224 orr.

"Lan honen helburua, testu teknikoak euskaraz idatzi behar dutenei nolabaiteko laguntza eskeintzea da, helburu pedagogikoa alegia, eta horretarako, hainbat urtetan irakaskuntzan aritu

ondoren lortu dugun esperientzia erabili dugu...

Hizkuntza teknikora, eta zehazkiago, hizkuntza idatzira murriztu gara eta askotan, itzulpenlariarekin zerkusia duten ideiak eskaini ditugu, euskara teknikoaren arazo ugari hain zuzen nahita edo konturatu gabe egiten den itzulpenetik baitatuz.

Artikulu-sorta gisa gauzatu dugu liburua eta ez gaika edo atalka antolatutako testu-liburu modura. Horrek interesgarriena edota problematikoen iruditzen zaizkigun gaiak ikutzea eta hainbat ikuspuntu erabiltzea baimendu digu... Edonola ere, testuen koherentzia edota kohesioarekin zerkusia duten hizkuntza baliabide gehienak ikutu ditugula esan daiteke".

(Iturria: Sarrera)

Lan honek jasotzen dituen artikuluak dira: ZABALA, I., "Testu-lotura: lotura tematikoa eta erreferentzia-sareak testu teknikoetan"; MAKAZAGA, J.M., "Perpauen arteko testu-mailako lotura: testu zientifikoak sortzen"; ZABALA, I., "Testuan iruzkinak sartzeko funtzioa izan

dezaketean antolatzaileak; *hau da, hain zuzen ere, adibidez, batez ere*", ALBERDI, J. eta GARCIA, J., "Zein (...) bait/-n egitura"; ELOSEGI, A. "Ohar batzuk -(e)larik eta -(e)la atzikiaren erabilera eta balioei buruz"; ODRIOZOLA, J.C., "Euskal baldintzazko adizkiak eta euskal baldintzapenak".


ZENBAITEN ARTEAN. *Argiro idazteko proposamenak eta ariketak*, HAAE, Gasteiz, 1997, 393 orr.

"...liburua ez da arau-emailea edo normatiboa, deskriptiboa baizik. Bertan agertzen diren irtenbideak, gure ustez, oso baliagarriak dira oraingo garairako, baina ez betirako, izan ere, hizkuntzak eta hizkerak bilakatu egiten baitira... Materiala sortzeko, ikuspegi didaktikoa izan dugu beti begi aurrean, eta horrela saiatu gara azalpen argiak, adibide ugariak (benetakoak eta, gainera, administrazioak), ariketak eta erantzunak eskaintzen... Argitaletxak, horrenbestez, sei atal ditu: Komunikazioa: testuak sortu aurretik kontuan hartu beharreko zenbait alderdi praktikoa biltzen dituena; Testugintza: testuak batasuna eta koherentzia izateko teknikak eta aholkuak ematen dituena; Gramatika: Euskaltzaindiaren azken arauak; Estilo-arazoak: erdarekiko morrontza sahiesteko hainbat proposamen egiten dituena; Administrazioko testuak euskaratzen: erdal testuak euskaratzeko zenbait teknika eskeintzen dituena; Administrazio-idazkiak: idazkiak egiteko irizpide orokorrak eta hainbat idazki-eredu biltzen dituena".

(Iturria: Lan-taldearen sarrera)

Aldizkariak

BENGOETXEA, J., "Europar Komunitateen Justizia Auzitegi kronika 1995-1996 Auzitegi-urtea", *Herri-Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria*, 46 zkia., 1996, 303-322 orr.



"...Justizia Auzitegiaren lana ez da prentsara iristen diren afera ospetsuekin agortzen. Auzitegi urtean zehar 250 epai inguru ematen dituen erakunde honen eragina

Europar Komunitate edo elkarteetako arlo askotara hedatzen da, eta ene lantxo honetan, 1995eko irailetik 1996ko uztaila bitarteko epai nagusien berri zabaldu nahi dut. Ezin dira epai guztiak aipatu, are gutxiago laburbildu, baina bai bederen interesgarriak jo daitezkeen berri eman. Arlo instituzionalako afera garrantzitsuenak aipatuko dira. Aukeraturiko aferak arloz arlo sailkatu ditut. Aukera hori ez da neutrala

izango noski, inpresionista baizik. Badaude aukeraturiko aferen artean alderdi berriak, irautzailatzat jo daitezkeenak".

(Iturria: artikuluaren sarrera)

URRUTIA, A., "Euskara eta Euskal Foru Zuzenbidea Notaritzaren alorrean: urte bateko jarduketa", 1 zkia., 1997, *Karmel*, 3-9 orr.



Ander Urrutiak artikulu honetan dion legez, "Zuzenbide munduan, oso urriak izaten dira estatistikak egiteko ahaleginak.


Urriagoak, zalantzarik ez, zuzenbide mundua eta euskara lotzen dituen kontuak badira horrelakoak". Horri heltzeko, Juan Ramón Manzanorekin batera 1996. Urtean zehar beren eguneroko notari-lagintzan

euskarak zein presentzia duen estatistiko isladatzen saiatzen dira.

EIZIE, *Senex, Itzulpen Aldizkaria*, 19 zkia., 1997

Senex Aldizkariaren zenbaki honetan Euskal Herriko Administrazio eta Justizia alorretako itzulpena da aztergai. EHUren 1996ko udako ikastaroen barruan EIZIEk antolatu zituen jardunaldiak ardatz, jardunaldi horietan aurkeztutako mintzaldiak biltzen ditu zenbaki honek, eman ziren hizkuntza berean. Aldizkariaren aurkezpen-hitzetan, "EIZIEk antolatutako jardunaldiek berek, haietara etorritako entzule ugariak eta itzultzaileen artean izandako oihartzun eta partaidetza zabalak argi erakusten dute euskal administrazio eta justiziako itzultzaileek ardura dutela beren lanbideaz, eguneroko jardunaren gainetik gogoeta egin beharra somatzen dutela, eta hori seguru aski orain arte itzultzaileak izan direlako euskararen normaltze eta gizarteratze ahaleginetan ahaztuen geratu direnak erakundeen aldetik. Edo okerrago dena, azken aldi honetan, itzulpena, istilu bide ari da gertatzen, Justizian hain zuzen, bertako estamendu desberdinen arteko lisgarrengatik, itzultzailea izanik beti bezala batzuen eta besteen ezinulertuen eragin okerra jasan behar duena, inolako babes korporatiborik gabe, gainera".

Zenbaki honetan jasotzen diren artikulua dira: AZURMENDI, L. "Administrazio eta Justiziako euskal



itzultzaileak: egoera eta estatus profesionala"; XIRINACHS, M. "La traducción como instrumento de normalización lingüística"; PALACIO GONZALEZ, J. "El papel de la traducción en el entramado comunitario"; SAN MIGEL, N. "Euskara Justizia Administrazioan: ohar batzuk"; AGIRRE, J. "Euskarazko itzulpen-juridiko administratiboen balio ofiziala"; ARGÜESO, A. "La traducción jurídica en España"; LOBERA, A. "Itzulpena Auzitegietan eta Administrazioan"; XIRINACHS, M. "La habilitación profesional de traductores e intérpretes jurados en Cataluña"; AGIRRE BEREZIBAR, J.M., "Zuzentzaileen zeregina administrazioko itzulpengintzan"; ARGÜESO, A. "Formación de traductores en Europa".

URTIZBEREA SEIN, I. "Schengen-eko Europa berria. Asilatu- eta errefuxiatu-estatutuaren eskatzaileen egoera", *Uztaro*, 19 zkia., 1996, 65-76 orr.

Lan honetan Schengen-eko akordioaren atal bat aztertzen da, asilatu eta atzerritarrentzat ezartzen den politikarena, hain zuzen ere. Artikuluaren arabera, akordio horrek hirugarren mundutik datorren emigrazioaren aurrean, Europa, gotorleku bilakatu nahi da, giza-eskubideen hitzarmen eta legeria nazionalak errespetatzeko. Autoreak planteatzen duen galdera zera da, "medio errepresiboak al dira giza-sustrai bat duen egoera horri irtenbidea emateko biderik egokienak?"



Berriak

Epaileak euskara ikasten

Urteak dira Eusko Jaurlaritzaren Justizi Saila eta aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia elkarlanean ari direla Euskal Autonomi Erkidegoan lanean diharduten epaile eta magistratuen prestaketa iraunkorren. Prestaketa programaren barruan, zuzenbidean sakontzeko, arazo juridikoen inguruan irizpideak elkartrukatzeko eta bateratzeko, eta azken batean, eguneroko jardunak sortzen dituen zalantzak argitzeko ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzeaz gain euskarazko ikastaroak ere antolatzen dira. Dagoeneko datorren ikasturterako izena emateko epea zabalik da eta guztion pozgarri, iazko halako hiruk eman dute aurten izena euskara ikasteko. (Iturria: Marian Arin, Justizi Saila)

Arabatik abokatuak euskaraz

Gasteizko Abokatu Kolegioko legelari euskaltzale talde baten ekimenez, Kolegioak, Euskara Batzordea sortu berri du. Joan den ekainean egin zituzten lehendabiziko bilerak batzordea antolatu eta egitekoak finkatzeko. Batzordearen kide den Ivan PICATOSTES ARRUEK azaldu digunez, Araban euskarak bizi duen egoera bete-betean isladatzen du bertako legelari euskaldun kolegiatuen kopuru eskasak. Haren ustetan hamabost bat lagun dira egun, euskara dakiten edo ikasteko bidean diren abokatuak. Hala ere, euskararen erabilera sustatzea eta gehitzea dute amets eta helburu aurreneko bileratara agertu dien legelariok, eta horri gogoz ekiteko asmoa ere azaldu dute etorkizunean informazioa eskeini eta ekimenak antolatzera jarri baitira. (Iturria: Ivan Picatostes, Gasteizko Abokatu Kolegioko euskara Batzordeko kide)

Ander Urrutia notario eta irakaslea, euskaltzain oso

Euskaltzaindiaren osoko bilkurak, 1997ko martxoaren 20an egindako bileran Ander Urrutia Badiola notario bilbotarra euskaltzain oso izendatu zuen. Legelari bizkaitarra 1954an jaio zen, ezkontuta dago eta Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide ikasketak egina da, 1976an lizentziaturikoa. Handik bost urtetara, oposizioak gainditu eta Ondarroako notaritzan lortu zuen. Bertan jardun zuen 1994. urterarte; orduan Bilbora pasatu baitzen notaritzan lanari bertan ekitera. Euskaltzaindiaren baitan Jagon saileko kide da eta baita EEBS Batzordekoa ere. Horretaz gain, Deustuko Unibertsitatean egun Zuzenbideko eskolak ematen ditu ele bietan eta bertako Euskara Juridikoaren mintegia zuzentzen du. Legelari gisa Euskal Herriko Foru Zuzenbideari buruzko Legea paratu zuen

batzordekide izana da. Ander Urrutiaren lan-eremu joriena berriz euskaraz egindako Zuzenbidearena eta euskara juridikoaren gainekoa da. Alor horietan egin duen lan eskerdaren lekuko euskaraz argitara emaniko lanak (berrogei ta hamar inguru).

(Iturria: Angel Lobera, "Andres Maria Urrutia Badiola euskaltzain oso", *Karmel*, 2. Zkia., 1997, 48-59 orr. A. Urrutiaren bibliografiarik garrantzitsuena jasotzen du)



Jardunaldiak

Udako Euskal Unibertsitateak aurten ere, ohi duen legez, zuzenbidearen inguruko saioak antolatzen ditu, eta, iazkoari eutsiz aurten bigarren aldiz, administrazioko hizkeraren gaineko jarduna ere eskeintzen du.

Mikel Aizpuru zuzendariaren hitzetan, urte berezia du aurtengoa UEUK. Izan ere, ez da egunero heltzen halako erakunde bat hogeitabostgarren urteurrenara. Uda honetako saioak Renè Cassin Lizeoan izango dira eta ez aurrekoetan bezala, Larraona ikastetxean.

Zuzenbidearen alorra uztailaren 21etik 25era bitartean jorratuko da, neoliberalismoa ardatz izango duela. Fenomeno horren azterketa zabala egiten saiatuko dira irakasle gonbidatuak, ez bakarrik zuzenbidearen ikuspegi hutsetik, baita soziologia eta ekonomiarenetik ere, hizlariak azalapenak emango baituzte. Lehenengo egunean, neoliberalismoaren eragina aztertuko da, oro har, hiru ikuspegitatik: soziologikoa, ekonomikoa eta juridikoa; onodren, alor zehatz bati ekingo zaio: lan-merkatua. Horretaz gain aztergai izango dira azken bi egunetan, Famili-zuzenbideko arazoak, euskal kirol selekzio nazionala eta, azkenik, euskaldunen eta administrazioaren arteko harremanak.

Administrazio hizkerari dagokionean, saioak uztailaren 21etik 25era izango dira, HAEEren eskutik, Joseba Lozano arduradun dutela. Aurtengoan, administrazioko idazkien kalitatea hobetzeko bideak ezagutarazi nahi dituzte eta horretarako, saio teoriko eta praktikoez baliatuko dira. Ikastaroen helburu dira: herritarrekiko komunikazioaren garrantzia azpimarratzea, estiloan sor daitezkeen zalantzarik nagusienak argitzea, administrazioko idazkiek modu erakargarrian diseinatzeko teknikez jabetzea, terminologiaren eta itzulpengintzaren bide berriak ezagutzea, administrazioko idazki zaharren eta euskalkien ekarpenak agerian uztea, informazioaren teknologia berriak ematen duten aukerez baliatzea eta ikasitako guztia lan-taldetan praktikan jartzea.

Nazioarteko terminologia biltzarra

Azaroak 12tik 14ra bitartean, Donostiako Miramar Jauregian, UZEIk eta HAEEK antolatuta, terminologiaren inguruko gogoeta egingo dute etxeko eta kanpoko adituek. Aztergai izango dituzte alor desberdinetako terminologiaren inguruko arazoak, terminologia lantzeko baliabide informatikoak, e.a. Hiru egun horietan ikusgai izango dira terminologia lantzeko dauden aplikazio informatiko berrienak.